## SAN PEDRO JAIETAKO JARDUEREN PROGRAMEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

1. Xedea

San Pedro Jaien programazioaren esparruan Lasarte-Oriako Udalak emango dituen diru-laguntzak erregulatzea da deialdi honen xedea.

2. Onuradunak

Egoitza Lasarte-Orian duten pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuak izan ahalko dira laguntzen onuradun, betiere interes orokorreko jardueraren bat egiten badute San Pedro Jaien esparruan.

Era berean, onuradun izan ahalko dira ondasunen erkidegoak edo beste edozein motatako unitate ekonomikoak edo ondare bereiziak, nahiz eta pertsonalitate juridikorik ez izan, baldin eta Diru-laguntzen Ordenatzetan ezarritakoaren arabera udalaren laguntza edo diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak edo jarduerak egin nahi badituzte.

Diru-laguntza hauen onuradun izateko Lasarte-Oriako Udaleko diru-laguntza eskatzaileen erregistroan inskribatua egon behar da.

3. Erregimen aplikagarria

Laguntzak norgehiagoka-erregimenean irekitako deialdiaren bitartez tramitatuko dira.

4. Eremua

Diruz lagunduko dena San Pedro Jaietan jarduerak eta/edo programak garatzea izango da, baldin eta, Lasarte-Oriako Udalak egiten dituen ekimenen osagarriak izanik, erabilera publikoa edo interes soziala badaukate xedetzat, eta, betiere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

5. Baztertzekoak.

Deialdi honen aplikazio-esparrutik kanpo geratuko dira beren izaeragatik edo xedeagatik San Pedro Jaietako jardun-eremuetako ezeinekin zuzenean zerikusirik ez duten jarduerak edo

## BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A PROGRAMAS DE ACTIVIDADES DE FIESTAS DE SAN PEDRO.

1.- Objeto

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las subvenciones que por parte del Ayuntamiento de Lasarte-Oria se concederán en el ámbito de la programación de Fiestas de San Pedro.

2.- Beneficiarios/as

Podrán acceder a la condición de beneficiario las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas radicadas en Lasarte-Oria que realicen una actividad de interés general en el ámbito de las Fiestas de San Pedro.

Podrán acceder asimismo a la condición de beneficiario, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aún careciendo de personalidad jurídica, pretendan llevar a cabo proyectos o actividades susceptibles de obtención de la ayuda o subvención municipal de acuerdo con lo establecido en las Ordenanzas de Subvenciones.

Para ser beneficiario de estas subvenciones es preciso estar inscrito/a en el registro de solicitantes de subvenciones del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

3.- Régimen aplicable

Las ayudas se tramitaran mediante convocatoria abierta en régimen de concurrencia competitiva.

4.- Ámbito

Será subvencionable el desarrollo de actividades y/o programas de Fiestas de San Pedro que siendo complementarias a las iniciativas que lleva a cabo el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, conlleven una finalidad de utilidad pública o interés social y cumplan las condiciones que se establecen en la presente convocatoria.

5.- Exclusiones

Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente convocatoria aquellas actividades o programas que por su naturaleza u objeto no guarde relación directa con ninguno

programak, edotaberen izaeragatik eta xedeagatik beste laguntza-programa batzuen bidez bideratzekoak liratekeenak.

Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Lege otsailaren 18koan ezarritakoa kontuan hartuta, ezingo dira diru-laguntza hauen onuradun izan:

— Kideak hautatzeko prozesuan sexuaren arrazoiz diskriminazioa egiten duten elkarte edo organizazioak.

— Emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea eragozten edo zailtzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak.

— Sexuaren arrazoiz diskriminazioa egiteagatik santzio administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, santzio hori indarrean dagoen denboran.

6. Bete beharreko baldintzak

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun izateko, eskatzaileak, oinarri orokorrak adierazten dituen baldintzaz gain ondoko hauek ere bete beharko ditu:

— Diru-laguntza ematea ebazteko proposamena egin aurretik, Udalarekin zorretan ez egotea. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

— Baldin eta beste administrazioa edo entitate batzuetatik – publikoak nahiz pribatuak, estatukoak nahiz nazioartekoak – helburu bererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, organo laguntza-emaileari horren berri ematea.

Eskatzaile bakoitzak ezingo du eskaera bat baino gehiago aurkeztu, San Pedro Jaietan ekintza bat baino gehiago egin nahi izan ezkero, denak eskaera berdinean joan beharko dute.

7. Aurkeztu beharreko dokumentuak

Diru-laguntza jasotzeko ondoren zehazten den dokumentazioa aurkeztu behar da:

- Diru-laguntza eskaera normalizatuan eta behar bezala betea.

- San Pedro Jaietan egingo den programaren edo jardueraren deskripzio xehatua,

de los ámbitos de actuación de las Fiestas de San Pedro o aquellas que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de ayudas.

Además, considerando lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, no podrán beneficiarse de estas subvenciones:

-Las asociaciones y organizaciones que incurran en discriminación por razón de sexo en el proceso de selección de personas candidatas.

-Las asociaciones organizadoras de actividades en las que se impida o dificulte la participación de las mujeres en igualdad respecto de los hombres.

-Las personas físicas o jurídicas con sanción administrativa o penal por haber incurrido en discriminación por razón de sexo, durante la vigencia de dicha sanción.

6.- Requisitos

Para ser beneficiario/a de las subvenciones reguladas en las presentes bases, el/la solicitante deberá cumplir, además de las condiciones señaladas en las bases generales, lo siguiente:

-No ser deudor/a del Ayuntamiento antes de formular la propuesta para resolver la concesión de la subvención. Este requisito será comprobado por el propio Ayuntamiento.

-Comunicar la órgano concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedente de cualesquiera administración o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.

Cada solicitante no podrá presentar más de una solicitud, en caso de querer realizar más de una actividad en las Fiestas de San Pedro, deberán ir englobadas en la misma solicitud.

7.- Documentación a presentar

Para percibir la subvención, hay que presentar la documentación que se especifica a continuación:

- Solicitud de subvención normalizada, y debidamente cumplimentada.

- Descripción pormenorizada del programa o actividad/es a realizar en las Fiestas de San

non azalduko diren: beharrak, egutegia, ordua eta jarduera mota zein den zehazteko beharrezkoak diren argibide guztiak.

- Diru-sarreren eta gastuen aurrekontua.

- Deklarazio bat adieraziz ez duela diru-laguntza publikoaren onuradun izateko inolako debekurik, Lasarte-Oriako Udalaren Diru-laguntzak emateko ordenantza Arautzaileak 5. artikuluan ezartzen dituen debeku-kausen arabera.

- Eskatzaileak Udalaz kanpoko diru-laguntzaren bat jaso badu, hori kreditutako duen agiria aurkeztu beharko du. Udalaren diru-laguntza, Udalaz kanpo jasotakoaren eta udal ordenantzaren arabera dagokionaren arteko diferentzia izango da.

- Eskatzaileak Udalaz kanpoko diru-laguntzarik jaso ez badu, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du.

Dena den, aurkeztutako dokumentazioaz gain, Lasarte-Oriako Udalak beharrezko jotzen duen informazio osagarria eskatu ahalko die pertsona fisiko edo entitate eskatzaileei, aurkeztutako jarduera edo programa hobeto baloratzeko xedez.

8. **Aurrekontuko kreditua eta diru-laguntzaren kopurua**

Diru-laguntzen aurrekontuen zuzkidura Gazteria eta Festak Departamentuaren urteroko deialdietan finkatuko da. Gehienezko diru kopurua Udalean indarrean dagoen «Instituzio Sozialak Herriko Festak 1 0501.481.01.338.00» kontu sailean dagoena izango da. Arau hau aplikatzea urte finantzario bakoitzeko aurrekontuetan beharrezko kreditua jasoko duen kontu sailari baldintzatua dago.

Diru-laguntza bakoitzaren banakako zenbatekoak ezingo du LAU mila euroko (4.000,00€) kopurua gainduta, ezta ere eskatzaileak eskatutako kopura. Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa, zenbateko jakin bat izango da.

9. **Eskabideak aurkezteko epea eta modua**

Eskabideak imprimaki-ofizialaren ereduan egin beharko dira, imprimakiaren gelaxka guztiak bete beharko direlarik.

Pedro en la que se especifiquen: necesidades, calendario, horario y cuantas aclaraciones sean necesarias para determinar el tipo de actividad.

- Presupuesto de ingresos y gastos.

- Declaración de no estar incurso/a en ninguna de las causas de prohibición para obtener la condición de beneficiario/a de subvención pública, establecidas en el artículo 5 de la Ordenanza Reguladora de Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

- Si el solicitante ha recibido una subvención extra-municipal, deberá presentar el documento que lo acredite. En ese caso, la subvención municipal será la diferencia entre lo recibido desde otra instancia y lo que les corresponda según la ordenanza municipal.

- En caso de que el/la solicitante no haya recibido ninguna subvención extra-municipal, deberá presentar una declaración jurada.

En todo caso, además de la documentación presentada, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá requerir a las personas físicas o entidades solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la actividad o programa presentado.

8.- **Crédito presupuestario y cuantía de la subvención**

La dotación presupuestaria de las subvenciones se establecerá en las convocatorias anuales del Departamento de Juventud y Festejos. La cantidad máxima será la que se establezca en el correspondiente ejercicio, de la partida presupuestaria: "Instituciones Sociales Festejos Populares 1 0501.481.01.338.00". La aplicación de esta norma está supeditada a la existencia en cada ejercicio de la partida presupuestaria que contemple el crédito necesario.

La cuantía individualizada de cada subvención, no podrá superar la cantidad de CUATRO mil euros (4.000,00€), ni la cantidad solicitada por la entidad. El importe de cada subvención será un importe cierto.

9.- **Forma y plazo de presentación**

Las solicitudes deberán formalizarse cumplimentando el modelo de solicitud oficial cumplimentando todas las casillas de la mencionada solicitud.

Eskabideak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, edo horretarako legez ezarritako beste edozein lekutan, Gazteria eta Festak Sailak urteko deialdian ezartzen duen epean.

Las solicitudes se deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Lasarte-Oria o en cualquier lugar legalmente establecido al efecto, en el plazo que se determine en la convocatoria anual del Departamento de Juventud y Festejos.

10. **Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Lasarte-Oriako Udalak San Pedro Jaietarako diru-laguntzak entitate eta elkarteek aurkeztutako proiektuen artean banatuko ditu, betiere deialdi honetako baldintzak betetzen badituzte, jarraian adierazten diren balorazio-irizpideez den bezainbatean:

**a.-** San Pedro Jaietarako aurkeztutako programaren edo proiektuaren ezaugarriei gehienez ere 40 puntu, honako alderdi hauek aintzat hartuta:

- Pertsona onuradunen (parte-hartzaileen) kopuruari gehienez ere 20 puntu.
- Festetarako programak edo jarduerak egina duen ibilbideari eta errotze-mailari gehienez ere 10 puntu.
- Programa antzerako proposamenekin eta San Pedro Jaietako jarduera edo taldeekin koordinatzeari, gaiak bateratuta eta programak koordinatuta, gehienez 10 puntu.

**b.-** Programaren edo jardueraren aurrekontuari gehienez ere 40 puntu.

**c.-** Entitate eskatzailearen ezaugarriei gehienez ere 20 puntu, honako alderdi hauek aintzat hartuta:

- Entitatearen edo konpartsaren jarraikitasunari eta fidagarritasunari gehienez ere 5 puntu.
- Programaren edo proiektuaren finantzazio-tasa. Eskatutako diru-laguntzaren eta entitateak edo taldeak jarritako baliabideen arteko proportzioari gehienez ere 15 puntu.

10.- **Criterios de valoración de las solicitudes**

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria distribuirá las subvenciones para las Fiestas de San Pedro entre los proyectos presentados por las entidades y asociaciones que cumplan los requisitos de esta convocatoria en relación a los criterios de valoración que se indican a continuación:

**a.-** Características del programa presentado para las Fiestas de San Pedro o del proyecto hasta un máximo de 40 puntos, en base a los siguientes aspectos:

- Número de personas beneficiadas (participantes), hasta un máximo de 20 puntos.
- La trayectoria y arraigo del programa o actividad festiva hasta un máximo de 10 puntos.
- Coordinación del programa con propuestas similares, actividades o grupos de Fiestas de San Pedro, unificados y con programas coordinados hasta un máximo de 10 puntos.

**b.-** Presupuesto del programa o actividad hasta un máximo de 40 puntos.

**c.-** Características de la entidad solicitante hasta un máximo de 20 puntos en base a los siguientes aspectos:

- Continuidad y solvencia de la entidad o comparsa hasta un máximo de 5 puntos.
- Tasa de financiación del programa o proyecto. Proporción de la subvención solicitada respecto a los medios aportados por la entidad o agrupación hasta un máximo de 15 puntos.

11. **Laguntza bakoitzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak**

Deialdi honetako baldintzak betetzen dituzten eskabide onartuek jasoko duten laguntzaren zenbatekoa zehazteko, kalkulua honela egingo da:

11.- **Criterios para determinar la cuantía de cada ayuda**

Para determinar el importe de las solicitudes aceptadas que cumplen los requisitos de esta convocatoria se realizará el cálculo de la siguiente manera:

A.- Kopuru finkoa

Parte honek laguntza bera bermatzen die deialdi honetako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei. Laguntza honen batura totala, gehienez ere, deialdi honetarako ezarritako zenbatekoaren %30 izango da.

B.- Eskaera bakoitzaren balorazioa

10. oinarrian seinalatutako kontzeptuetariko bakoitzaren balorazioaren baturak puntu-kopuru total bat emango dio eskaeragile bakoitzari. Deialdi honetarako aurrekontu totalaren %70 eskabide onartuetan lortutako puntu-kopuruen totalaren artean zatituta aterako da ponderazio ekonomikoko indizea puntu bakoitzeko, eta hori eskatzaile bakoitzak ateratako puntu-kopuruarekin biderkatuta aterako da eman beharreko diru-laguntzen ebazpenerako B proposamena. Ebazpenerako proposamena eskatzaile bakoitzaren A eta B atalen baturak osatuko du.

12. **Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa eta epeak**

Diru-laguntzaren erabilera justifikatzeko, Diru-laguntzen Ordenantza Munizipalean ezarritakoaren arabera egingo da, eta ordenantza horretan adierazitako sinestamenduak onartuko dira baliozko agiri justifikagarritzat. Diru-laguntza honen zenbatekoa dela eta, justifikatzeko modalitatea justifikazio-kontu erraztua izango da.

Justifikatzeko eskabide eredu ofiziala erabiliko da laukitxo guztiak beteaz.

Justifikazio kontuak gutxienezko informazio hau jasoko du:

1. Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketa-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dituena.

2. Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:

a) Jarduerako gastu eta inbestimenduen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa data biltzen dituena.

b) Suertaturiko desbideratzeak ere adieraziko dira.

A.- Cantidad fija

Esta parte asegura a todos los solicitantes que cumplen los requisitos de la convocatoria una misma ayuda. La suma total de esta ayuda será como máximo el 30% del importe establecido para esta convocatoria.

B.- Valoración de cada solicitud

La suma de la valoración de cada uno de los conceptos señalados en la base 10 otorgará una puntuación total a cada solicitante. Del resultado de dividir el 70% del presupuesto total para esta convocatoria entre el total de las puntuaciones obtenidas en las solicitudes admitidas se obtendrá el índice de ponderación económica por punto, que multiplicado por la puntuación de cada solicitante resultará la propuesta B de resolución de subvenciones a conceder. Las propuestas para la resolución estará conformada por la suma del apartado A y B de cada solicitante.

12.- **Justificación de la utilización de la subvención y plazos**

La justificación de la utilización de la subvención se realizará conforme se establece en las Bases Generales de Subvenciones, admitiéndose como documentos justificativos válidos los señalados en la misma. Teniendo en cuenta el importe máximo de la misma se realizará en la modalidad de cuenta justificativa simplificada.

Para la justificación se empleará el modelo de solicitud oficial cumplimentando todas las casillas.

La cuenta justificativa contendrá al menos la siguiente información:

1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

b) Se indicarán así mismo las desviaciones acaecidas.

Justifikatzeko gehienezko hilabeteko epea ezartzen da San Pedro Jaiak programaren ejekuziorako epearen amaieratik kontatzen hasita.

13. Diru-laguntzaren bateragarritasuna

Deialdi honen xedeko diru-laguntzak bateragarri izango dira beste diru-laguntza batzuekin, betiere jasotako zenbateko totalak jarduerarako egindako aurrekontuko kopuruaren %100a gainditzen ez badu, ezen-eta, horrela gertatzen bada, dagokion muga maximoraino murriztuko baita diru-laguntza.

14. Diru-laguntza ordaintzeko modua eta epeak

Orokorrean, diru-laguntzen ordainketa burutuko da, beti ere baldintza administratiboak betetzen baldin badira, Lasarte-Oriako Udaleko Diru-laguntzen Oinarri Orokorretan azaltzen diren modu eta epeetan.

15. Azken xedapena

*Lehena*: Urtero dagozkion deialdiak onartzeko derrigortasuna utzi gabe, oinarri hauek indarrean jarraituko dute organo eskudunak aldatzen ez dituen bitartean.

*Bigarrena:* Izaera orokorreko arau honetan aurreikusi gabeko guztirako, osagarri gisa aplikatzekoa izango da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzen duen erregelamenduan xedatutakoa, bai halaber erregimen lokalari buruzko estatuko araudiak eta Lasarte-Oriako Udalaren beraren araudiek ezarritakoa.

*Hirugarrena*: Arau honek jasotzen dituen xedapenen artean, badira Udalak eta/edo administrazio publiko batzuek beren eskumenak gauzatuz onetsitakoak eta zuzenean eta nahitaez aplikatu beharrekoak. Beraz, alberdi horien gainean onesten diren arau-aldaketak automatikoki jasoko dira, eta berariaz onesteko erabakia hartu beharrik gabe eguneratuko dira ordenantza honetan.

16. Xedapen indargabetzailea

Indargabetua geratzen dira oinarri honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo aurka doazen udaleko arau eta xedapen guztiak.

Se establece un plazo máximo de justificación de un mes desde el fin de plazo de ejecución del programa de Fiestas de San Pedro.

13.- Compatibilidad de la subvención

Las subvenciones objeto de esta convocatoria serán compatibles con otras subvenciones, siempre que el importe total concedido no supere el 100% de la cantidad presupuestada para la actividad, reduciéndose la subvención, si esto ocurriese, hasta el límite máximo correspondiente.

14.- Abono de la subvención

En general, el abono de estas subvenciones se realizará, siempre y cuando se cumplan los requisitos administrativos fijados, en la forma y plazos señalados en las Bases Generales de Subvenciones del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

15.- Disposición final

*Primero*: Sin perjuicio de la obligación de aprobar las correspondientes convocatorias anuales, las presentes bases específicas seguirán en vigor en tanto en cuanto no se proceda a su modificación por el órgano competente.

*Segundo*: En todo lo no previsto en esta norma de carácter general será de aplicación supletoria lo dispuesto en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en el reglamento que desarrolla dicha ley, así como lo establecido en la normativa estatal de régimen local, y en las normativas del propio Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

*Tercero*: La presente Norma recoge disposiciones aprobadas por el Ayuntamiento y/o por Administraciones Públicas en el ejercicio de sus competencias y que resultan de aplicación directa y obligatoria. Por tanto, las modificaciones normativas que se aprueben sobre dichos aspectos serán recogidas automáticamente, actualizando estas bases sin necesidad de adoptar acuerdo aprobatorio específico.

16.- Disposición derogatoria

Quedan derogadas todas las normas y disposiciones municipales en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en la presente base.